

DIRULAGUNTZAK:

Euskal sortzaileen mugikortasuna

Euskara. Kultura. Mundura.

Euskal sorkuntza nazioartean sustatzen

Etxepare Euskal Institutuaren lan-ildo nagusietako bat da euskal sortzaile eta artisten nazioarteko presentzia sustatzea. Euskal sortzaileen mugikortasunerako dirulaguntzak funtsezko tresna dira atzerrian gure kultur eta sormen sektorearen posizionamendua indartu, bere presentzia eta ikusgarritasuna sendotu, eta nazioarteko kultur eragileekin saretze lana bultzatzeko.

Euskararen eremu geografikotik kanpo burutzen diren jaialdi edo kultur programazioetan euskal sortzaile eta artisten parte hartzea errazteko helburuarekin, ostatu eta garraio gastuak ordaintzeko, muntaketa, eszenografia edo materialen garraioan laguntzeko, dietak ordaintzeko eta, oro har, artista eta sortzaileen, eta hauen lanen mugikortasunean sor daitezkeen gastuak ordaintzeko dira dirulaguntza hauek.

Arte plastikoak eta ikusizkoak

Euskararen eremu geografikotik kanpo arte garaikideko erakusketak edo gertakizunak antolatzeko, edo beraietan parte hartzeko (lehiaketak, jaialdiak, erakusketak, egoiliar gisako proiektuak, etab.) dirulaguntzak.



Musika



Musika talde eta bakarlariak euskararen eremu geografikotik kanpo birak egiteko, eta musika jaialdi, hitzordu edo programazioetan kontzertuak emateko dirulaguntzak.

Dantza

Euskararen eremu geografikotik kanpo dantza birak egiteko eta nazioarteko dantza jaialdi, hitzordu edo programazioetan emaldiak eskaintzeko dirulaguntzak.



Antzerkia

Euskararen eremu geografikotik kanpo antzerki denboraldiak egiteko eta nazioarteko jaialdi, hitzordu edo programazioetan emaldiak eskaintzeko dirulaguntzak.



Literatura

Literatura sektoreko sortzaile eta eragileak (idazle, ilustratzaile, itzultzaile eta editore) literatura-alorreko nazioarteko ekitaldi eta kultur jardueretan parte hartzeko dirulaguntzak, horietan libururen bat aurkeztu edo ordezkatu behar dutenean, literatura-sorkuntzaz jardun behar dutenean edo euskal ordezkaritza gisa doazenean. Dirulaguntza hauek garraio gastu, ostatu gastu eta dietetarako dira.



Zinea

Zinema alorreko sortzaile eta eragileak (zuzendari, aktore, ekoizle, gidoigile) nazioarteko zinemaldietan parte hartzeko dirulaguntzak, horietan beren filmen bat aurkeztu edo ordezkatzeko hautatuak izan direnean. Dirulaguntza hauek garraio gastu, ostatu gastu eta dietetarako dira.



Beste kultur jarduerak

Etxepare Euskal Insitutuaren jarduera-eremuarekin bat etorrira ere, gure gainontzeko deialdietatik at geratzen diren beste kultur adierazpide berezi batzuk (abesbatzak, dantza tradizionaleko talde, etab.) sustatzeko dirulaguntzak. Dirulaguntza hauek garraio eta ostatu gastuetarako dira.

Eskaera epea

Dirulaguntzak eskatzeko epea apirila eta maiatza artean izan ohi da. Eskaerak elektronikoki, www.euskadi.eus webgunean, edo aurrez aurre, Etxepare Euskal Institutuan edo Zuzenean zerbitzuaren bidez, egin daitezke.

Deialdi bakoitzaren eskaera epe zehatza, beste data garrantzitsu batzuk, balorazio irizpideak, eta dirulaguntzen argibide guztiak www.etxepare.eus webgunean aurki ditzakezu.

Nork eska ditzake dirulaguntzak?

- Errola edo egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.
- Zabaldu nahi den obra edo lanaren komunikazio-hitza euskara denean, errola edo egoitza soziala euskararen eremu geografikoan (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa) duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua erakunde publiko bat da. Gure helburua da nazioartean euskara eta euskal kultura eta sorkuntza sustatu eta ezagutzera ematea, eta hauen bidez, beste herrialde eta kulturekin harreman iraunkorrak eraikitzea.

Horretarako kalitatezko jarduera artistikoak sustatu, eta sortzaile, artista eta kultur eta sektoreetako profesionalen mugikortasuna bultzatzen dugu, baita euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza ere. Halaber, nazioarteko eragileekin elkarlana sustatzen dugu eremu kultural eta akademikoan. Horretan guztian estuki lan egiten du Euskadiren kanpo ordezkartzeekin.

Etxepare Euskal Institutua

Tabakalera
Andre zigarrögileen plaza, 1
20012 Donostia / San Sebastián
T. +34 943 023 400
www.etxepare.eus





ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

GRANTS:

Mobility funding for creative talent

Euskara. Kultura. Mundura.

Promoting Basque culture around the world

One of the main endeavours of the Etxepare Basque Institute is to support Basque writers, artists, performers, publishers, producers and other creative talent on the international scene. Mobility funding is an important means of supporting and enhancing the visibility of Basque culture abroad, and helps build and maintain networks with cultural stakeholders around the world.

Aimed at facilitating the participation of Basque authors and artists in festivals and cultural events outside the Basque-speaking area, the mobility grants cover travel, accommodation, meals, transport and setting up of material and stage props, and any other related expenses.

Visual arts

Grants are available for organizing and participating in contemporary art exhibitions and events (such as competitions, festivals, exhibitions and residency projects) outside the area where Basque is spoken.




Music



The music grants are intended to subsidize the touring costs of bands and solo musicians, and concerts at festivals and other music events outside the area where Basque is spoken.


Dance

The dance grants are intended for dance company tours and performances at international festivals and other dance events outside the area where Basque is spoken.




Theatre

The theatre grants subsidize theatre seasons as well as performances at international festivals and events outside the area where Basque is spoken.



Literature

The literature grants are aimed at writers, illustrators and literary translators and publishers who wish to present a book, give a talk on writing or represent the Basque culture at international literature events. The grants cover travel expenses, accommodation and meals.



Cinema

These grants are awarded to film directors, actors, producers and screenwriters who have been selected to present or represent films at international film festivals. The grants cover travel expenses, accommodation and meals.



Other cultural activities

Further grants are available to subsidize other sundry events which often fall outside the main grant categories, such as choirs and traditional dance companies, etc. These grants cover travel and accommodation expenses.

Application period

The application period for these grants is normally in April and May. Applications can be made online at www.euskadi.eus, in person at the Etxepare Basque Institute, or via the Basque Government's Zuzenean service.

The exact application date for each of the grants as well as other important information regarding the grants and the evaluation process can be found at www.etxepare.eus

Who is eligible for a grant?

- Private individuals or legal entities domiciled in the Basque Autonomous Community
- Private individuals or legal entities domiciled in the area where Basque is spoken (the Basque Autonomous Community, the Autonomous Community of Navarre and the French Basque Country) are also eligible when the project concerned is in the Basque language.

Etxepare Basque Institute

The Etxepare Basque Institute is a public agency dedicated to promoting Basque language, culture and creative talent internationally, and to building lasting relationships with other countries and cultures in these areas.

To this end, we foster quality artistic activities and support the mobility of artists and cultural industry professionals, as well as teaching Basque language and culture. We also encourage collaboration with international stakeholders in both the cultural and academic fields, working closely with the official Basque delegations abroad.

[Etxepare Euskal Institutua](http://www.etxepare.eus)

Tabakalera
Andre zigarrrogleen plaza, 1
20012 Donostia / San Sebastián
T. +34 943 023 400
www.etxepare.eus

